



ADINGABE ARAU-HAUSLEEN ERANTZUKIZUN PENALARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak adingabe arau-hausleen Erantzukizun Penalari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean

Baldintzak:

1. Ikastaroa, bereziki, Euskadiko Justizia Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan jardunean daudenentzako; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu. 300 plaza. **Ez du lan-poltsetarako balio.**
2. AUTOMATRIKULA: Izena emateko pea **otsailaren 4an** irekiko da eta **otsailaren 18an** itxiko da goizeko **09:00etan**.

- [Adingabe arau-hausleen Erantzukizun penala online izen ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. Otsailaren 11n, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsonei, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne.**
4. IKASTAROA: **Martxoaren 2an** hasiko da, **14:00etan**, eta **martxoaren 17an** amaituko da, **09:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
5. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta modulua behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
6. Egitaraua:
 - Adingabeen prozesu penala
 - Adingabeen erantzukizun penala arautzea
 - Adingabeen prozesu penalaren printzipio informatzaileak
 - Adingabeei ezar dakizkiekeen neurriak
 - 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremua
 - Erreforma-espedientea hastera
7. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
8. AZTERKETA: **Martxoaren 18an, 14:00etan**, irekiko da azterketa online egiteko epea, eta **martxoaren 31ean** itxiko da, goizeko **09:00etan**.
1. Gainditu dutenek diploma jasoko dute **"Nire karpeta" -Euskadiko Sare Elektronikoa-atalean**.